

# 7. Unitatea: Feminismoak eta emakumeen mugimenduak

Unitate honetan ikusiko dugu Afrikako emakumeek beren gizarteetako borroka sozial eta politikoetan parte hartzeko tradizio historikoa dutela, eta hori askotan ikusezina izan dela.

Emakume afrikarrek beti asmatu izan dituzte beren burua antolatzeko moduak, autonomia- eta askatasun-espazioak lortzeko.

Afrikako emakumeen ahots pluralak agerian uzten dituzten feminismo afrikarren aldarrikapenak aztertuko ditugu.

Gaur egungo emakumeen mugimenduak ugariak eta askotarikoak dira, eta zeregin erabakigarria dute beren herrialdeetako gertaera sozial eta politikoetan.

**Unitate honetan aurkituko ditugun jarduerak:**

Sustraira, jolastu eta zabaldu begirada.





## Lidergo femeninoak historian zehar

Afrikako emakumeek beren gizarteetako borroka sozial eta politikoetan duten eraginak eta parte-hartzeak tradizio luzea dauka. Funtsezko zeregina izan dute kontinentearen garapenean, koloniek ezarritako menderakuntzaren eta esklabotzaren aurkako erresistentzian, eta, gaur egun, garrantzi handia dute politikan, beren lurraldeetan **ekintzaileak, liderrak eta erabaki-hartzaileak** diren aldetik. Emakume horietako batzuketarreginak, faraoiak, gerlariak, hezitzaileak, politikariak edo aktibistak izan ziren. Hala ere, askotan, Afrikaren historiako protagonista horiek ahaztuta geratu dira, eta ia beti gutxietsi izan dira haien garrantzi funtsezkoa eta zibilizazio afrikar eta unibertsalaren eraikuntzari egindako ekarpena. Horietako batzuk ezagutuko ditugu.

Berrikiago, XX. mendean, emakume askok **aktiboki parte hartu zuten Afrikako independentzietan**, beren herrialdeetako askapen nazionaleko mugimendu armatuetan ere borroka eginez; besteak beste, **Bibi Titi** Tanzaniaren independentzian, **Josina Machel** Mozambikerenean edo **Titina Sila** Guinea Bissaun.

Jada XXI. mendean, Afrikako emakume batzuen lidergoa aipatu **behar da, beren herrialdeetako estatuburu eta presidente** kargua bete baitute. Horien artean daude: Joyce Banda, Malawiko estatuburua; **Ellen Johnson Sirleaf**, Liberiako presidentea; Sahlework Zewde, Etiopiako presidentea, eta **Saara Kuugongelwa**, Namibiako lehen ministro eta gobernuburua; **Phumzile Mlambo-Koslamina**, Hegoafrikako presidenteordea; **Nkosa-zana Dlamini-Zuma**, Afrikako Batasunaren Batzordeko presidentea; eta **Mame Madior Boye**, Senegalen lehen ministro karguan izandako aurreneko emakumea.



## **Fatima al-fihri**

(Afrikako iparraldea, 800 - 880) emakume arabiar eta musulmana, IX. mendean Qarawiyyingo meskita fundatzeagatik ezaguna. Gaur egun martxan dago, eta Fezeko Qarawiyyingo Unibertsitatea (Maroko) deitzen zaio, munduko zaharrena.

### ▼ **Qarawiyyingo Unibertsitatea**

**Taytu Betul  
Njinga Mbandi  
Yaa Asantewaa  
Amina de Zaria**

## **Autoantolakuntza estrategiak**

Remei Sipi Mayo idazle ginearrek dioenez, emakume afrikarrek beti sortu izan dituzte beren ingurune osoak bizirik irauteko estrategiak. Hala, historikoki, autoantolatu egin dira **baztertuak edo desplazatuak izan diren espazio ekonomiko eta sozialak okupatzeko estrategiak garatzeko.**

Kolonien aurreko garaitik, estrategia horietako asko beren beharrekin lotutako gaiak lortzera bideratu dira, **autodeterminazio eta emantzipazio handiagoa lortzeko ekintza kolektiboen bidez.**

### **Ikus ditzagun prozesu horietako batzuk: emakume afrikarren autoantolakuntza estrategiak.**

**1. Tontineak (emakume afrikarren finantza-subiranotasuna).** Afrikako herrialde askotan garatzen den emakumeen praktika asoziatiboa da. Hitzik hedatuena *tontine* den arren, badira beste izen batzuk ere: Nigerian, Yoruba herriak esusu deitzen die, Kongoko Errepublika Demokratikoan *likelemba*, Kenyan *obilimba*, Malawin eta Zambian *chilemba*, eta abar.

*Tontine* bat familia-loturek, adiskidetasunak, auzotasunak edo lotura profesionalek elkartzen dituen emakume-taldeak osatzen du. Taldeko kideek, elkarrekiko konfiantzan oinarrituta, diru kopuru finkoak inbertitzen dituzte funts komun batean, behar duten kideei maileguak ematen dizkien aurrezki kolektiboko kutxa bat osatzeko. Elkarrekin aurrezteko eta, aldi berean, aurrezki horietako batzuk modu indibidualean aprobetxatzeko bitartekoa da. Garrantzi handia dute tokiko aurrezkiaren mobilizazioan, eta batzuetan beren zeregina kentzen diete bankuei.

*Tontineak* emakumeen autonomia, askatasuna eta emantzipazioa sustatzen dituzte, **kreditua eskuratzeko modu erregularrak** eta beren artean ezartzen diren **elkartasun- eta laguntza-loturek** aukera ematen baitiete emakumeei jarduera ekonomiko propioak garatzeko, seme-alaben ikasketak zabaltzeko, gaixotasun-gastuei aurre egiteko edo familia-unitaterako zailak diren aldiei aurre egiteko. ***Tontineak*** garatuago dauden herrialdeetan, **bizi-aseguru gisa, aseguru mediko gisa eta taldea osatzen duten emakumeentzako pentsio-sistema gisa balio dute.**

▼ **Remei Sipi, Saara Kuugongelwa eta Funmilayo Ransome-Kuti Emakume sahararren haimak**



**2. Emakumeen arteko ezkontza.** Tanzanian, Kaira herriko emakumeek, Victoria lakutik hurbil, jaraunspen-eskubidetik kanpo uzten dituzten kultura-praktika diskriminatzaileak, jaraunspena gizonentzat baino ez izatea ahalbidetzen dutenak, saihesteko estrategiak garatu dituzte. Estrategia hori, *nyumba ntobhu* izenekoa, “gizonik gabeko etxea” edo “emakume-etxea” esan nahi duena, sexu-harremanik gabeko lotura modu tradizionala da; horretan, semerik gabeko alarguna den adin handiko emakume bat eta seme-alabarik gabeko emakume gazte bat elkartzten dira. Harremanaren parte gisa, bikote horretako emakume gazteena harreman horretatik kanpoko gizona bikote baten semeaz erditzen da; adin handiko emakumea, horrela, haurraren amona bihurtzen da, eta ziurtatzen du bere jabetzak oinordekoak heredatuko dituela eta ez hildako senarraren senide gizonek.

Kaira herrian, *nyumba ntobhu* bikoteen etxeak etxe guztien %10 eta %15 artean dira. Azken hamarkadetan, ezkontza horiek maizago gertatu dira, bi emazteen egoera hobetzeko aukera ematen dutelako, **zaintza- eta laguntza-harremanak** ezartzen dituztelako, **bi emakumeen sostengu ekonomikoa bultzatzen dutelako**, eta, emazte gaztearen kasuan, bikotekide maskulinoa aukeratzeko eta genero-indarkeriako egoeretatik babesteko autonomia handiagoa.

## **Feminismo afrikarrak**

Patriarkatua munduko leku guztietan egon da eta dago, eta, lurralde bakoitzean, bere moduak ditu kontrolatzeko eta zapaltzeko. Horregatik, emakumeen zapalkuntza horrekiko erresistentzia-estategiek zenbait pentasamendu- eta ekintza-ildo feminista sortu dituzte. **Feminismoaren ideia unibertsala da, baina modu desberdinean agertzen da testuinguru kulturalaren arabera.** Horregatik, **feminismoak pluralean** aipatzen ditugu.

Borroka feministak hasi zirenetik, **emakume afrikarrek kontinenteari zegozkion jakintzak eta estrategiak aldarrikatu zituzten, eta beren ekintzaren erdigunean beren bizitzak eta kezkak jarri**, mendebaldeko feminismoak planteatutakoetatik nabarmen bereizten zirenak, feminismo horrek European eta Estatu Batuetan identifikatutako interes feministetan oinarritutako ikuspegia eskaintzen baitu.

## **Feminismo afrikarren ezaugarri komunak**


Dakigun bezala, kontinente afrikarra askotarikoa denez, denboran zehar hainbat pentsamendu- eta ekintza-ildo feminista sortu dira han. Horregatik, **feminismo afrikarrez hitz egin behar da pluralean**. Guztien ezaugarri komun batzuk ikusiko ditugu.

**Generoan oinarritutako diskriminazioak gainditzeak ez ezik, etnizitatean edo arrazan oinarritutakoak gainditzeak ere** kezkatzen ditu feminismo afrikarrak. Feminista afrikarrek salatzen dute arraza-faktoreek genero-faktoreek baino modu sendoagoan eragiten dutela emakume afrikarren diskriminazioan.

Afrikako pentsamendu feministak **Afrikako emakumeek opresio kolonialistaren ondorioz jasandako desabantailetatik abiatzen dira**. Kolonialismoaren aurretik, emakume afrikarrak oso presente zeuden beren komunitateetako lan, parte-hartze eta gizarte arloetan. Adibide bat Nigeriako Ibo emakumeena da. Botere eta autoritate handia zuten, eta lan sozial gehienak emakumeek zein gizonek egiten zituzten, batzuek zein besteek berdin. Afrikako ia gizarte guztietan, adin handiko pertsonak, gizon zein emakume, ziren beren komunitateetan autoritate handiena zutenak; beraz, emakume askok gizarte-rol nabarmenak zituzten. Hala ere, kolonialismoak baztertu egin zituen emakumeak ekoizpen-prozesuetatik, eta boterea zuten gizarte- eta politika-egituretatik kendu zituen, menderakuntza-maila, ustiapen ekonomikoa eta marjinalizazioa handituz.

Hala, feminismo afrikarren ezaugarrietako bat da salatzen dutela diskriminatuta daudela ez emakume izateagatik soilik, baita arraza/etnigatik eta klase sozialagatik ere. **Aldagai horiek erlazionatu egiten dira, eta diskriminazio eta desberdintasun are biziago eta espezifikoagoa eragiten dute.**





**“Emakume afrikarrok gure ingurune osoaren biziraupenerako estrategien sortzaileak gara.”**

*Remei Sipi*

◀ **Josina Muthemba Machel Nkosazana Dlamini-Zuma**

**Feminismo afrikarrak: feminismoaren ideia unibertsala da, baina modu desberdinean agertzen da testuinguru kulturalaren arabera.**



▲ **Egile feministak:**  
**Molara Ogundipe-Leslie,**  
**Amina Mama eta Tsitsi Dangarembga**

Afrikar feminismoek berezkoa duten beste alderdi bat da beren aldarrikapenak lortzeko gizartearekiko jarrera kolaboratzaileak eta kooperatiiboak sustatzen dituela. **Genero-berdintasunaren aldeko borroka komunitate osoaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin gauzatzen da.**

Era berean, uste dute berdintasunezko gizartea lortzeko beharrezkoa dela **gizonen eta emakumeen arteko osagarritasuna**. Kanpoko menderakuntza eta esplotazioa erazteko borrokaren aurrean, gizonen laguntza dute, eta emakumeei baino eragiten ez dieten eta desagertu behar diren desberdintasunei buruz kontzientzia hartzeko eskatzen diete gizonen.

Afrikako pentsamendu feministarentzat, **amatasuna indarra da**. Emakume izateak dituen alderdi guztiak kontuan hartu behar direla uste dute, eta rol biologikoak emakume afrikarrentzako indarra direla onartzen dute. Emakumeen autonomia, emantzipazioa eta lankidetzak aldarrikatzen dute, baina baita amatasuna ere. Beren ustez, *motherhood* edo amatasun hitzak hobeto adierazten du emakumeen arteko benetako elkartasuna haurridetasun edo sororitate hitzek baino, **Afrikako bizitza komunitarioaren berezko laguntza-, konfiantza- eta babes-balioak direla-eta**; horietan garrantzi berezia ematen zaie amei edo “amakideei”.

Azkenik, Afrikako mendebaldeko mugimendu feministak bereizten dituen alderdi bat da Afrikako testuinguruaren berariazko eskaerak jasotzen dituztela, hala nola Afrikako zenbait lurraldetan oraindik urriak diren osasun-, etxebizitza- eta hezkuntza-zerbitzuak eskuratzeko aukera. **Beraz, garrantzi berezia ematen diote emakumeak eskubide sozioekonomikoak eskuratzearen bidez ahalduntzeari.**

## **Feminismo afrikarren aniztasuna**

Afrikar feminismoen aniztasun horren barruan, duten garrantziagatik, **diasporan** garatu direnak aipatu behar dira, hau da, mundu osoko emakume afrikarren komunitateetan garatu direnak. Leku horietatik, eta beren esperientzietan oinarrituta, askotan bazterketakoa eta arrazismokoa, emakume afrikarrek “afrikar identitate bat diasporan” sortu dute, eta, hortik abiatuta, pentsamendu eta ekintza feministak landu dituzte, emakume afrikarrak kontinente barruan zein kanpoan emantzipatzea lortzeko. Horietako batzuk emakumeak Afrikan kezkatzen dituzten gaien “bozgorailu” dira, eta beste batzuek jatorri afrikarreko emakumeen aldarrikapenak dituzte ardatz. Hala, **Afrikako pentsamendu feminista aberasten eta zabaltzen laguntzen dute diasporako pentsalari eta ekintzaile ugariak.**

Pentsamendu feministaren beste ildo batean, egunez egun gero eta indar handiagoz, **feminismo islamikoak** daude; oso joera desberdinak biltzen dituzten arren, bat egiten dute islamaren testu sakratuen berri-rakurketa feminista bat egiteko proposamenean, legeria islamiarren itu-rrien interpretazio matxistak baztertuz.

Oro har, emakume musulmanak dira, beren kultura- eta erlijio-tra-dizioetan oinarrituta, gizarte musulmanetan nagusi den matxismoa arbuiatzen dutenak, islamaren berdintasun-espirtua azpimarratzen dutenak eta printzipio islamikoak berreskuratzea defendatzen dutenak, emakume musulmanen askatasuna eta berdintasuna bermatzen dute-lakoan. Uste dute Koranean jasotako gizonen eta emakumeen arteko ber-dintasun-printzipioek eraitsi egiten dutela egin den islam patriarkalaren eraikuntza.

## **Emakume afrikarrek zuzendutako mugimendu sozial eta politikoak gaur egun**

Gauregun, **emakumeen mugimendu eta erakunde ugari dago** Afrikan, estrategiak eta ekimenak sustatzen dituztenak **aurre egi-teko gatazkei, emakumeek jasaten dituzten askotariko indarke-ria-motei, eskubide sozioekonomikoetarako sarbideari edo bote-rearen marjinazio politikoari**. XXI. mendeko lehen hamarkadetan, mugimendu horiek aurrerapen handiak ekarri dituzte hezkuntzan, osasungintzan eta ordezkaritza politikoan (aurretik aipatu ditugun ibilbide historikoen ondorioz).

Hala, berriki, emakumeek zuzendutako mugimenduek parte-hartze aktiboa izan dute hainbat gatazka armatutako bake-negoiazioetan (Sudan, Liberia, Uganda, Burundi edo Somalia), emakumeen mutilazio genitalaren (EMG) aurka eta emakumeen ugalketa-eskubideen alde borrokatzeko mobilizatu dira, edo “Udaberri Arabiarra” (Tunisia, Egipto) deritzonaren iraultzen erdigunean egon dira.

## Gizarte polarizatueta elkarriketako eta enpatiako zubiak eraikitzea lortu dute emakumeek

Azken bi hamarkadetan, afrikarrek aurrerapen handiak egin dituzte eskubideen arloan, neurri handi batean herrialde askok egonkortasun politiko handiagoa lortu dutelako. Aurrerapen nabarmena egon da, adibidez, aukeratzeko eskubidean, lidergo politikoan parte hartzeko eskubidean, prozesu politikoetan eragiteko gaitasunean eta, are, justizia trantsizionalean ere.

- ▼ **Egile feministak:**  
**Sirin Adlbi Sibai**  
**Miriam Hatibi**  
**Suelma Beiruk**





▲ Betty Bigombe (Uganda)  
Leymah Gbowee (Liberia)

## Emakume afrikarrak gatazken konponketan eta bakearen eraikuntzan

Afrikako emakumeen mugimenduak funtsezkoak izan dira kontinenteko gatazka armatu askotarako irtenbide negoziatua bultzatzeko. Emakumeek elkarrizketarako eta enpatiarako zubiak eraikitzea lortu dute gizarte polarizatuetan, non zatiketa oso sakon errotuta baitzegoen, eta, gatazka amaitu ondoren, lidergoa hartu dute komunitatearen berreraikuntzan, beren beharrak eta interesak kontuan har daitezela aldarrikatuz.

**Sierra Leona, Uganda, Somalia, Burundi, Liberia eta beste herrialde batzuetako** emakumeek borroka egin behar izan dute beren aldarrikapenak bake-itunetan jaso daitezten. Ia beti, talde armatuetako liderrek eta bake-elkarrizketen buru diren gobernuek mesfidantzaz hartu dute emakumeen parte-hartzea edo agendan genero-berdintasuna bake-negoiazioetarako alderdi garrantzitsu gisa sartzea. Azken bi hamarkadetan, borroka horiei esker, handitu egin da genero-berdintasunari, emakumeari, bakeari eta segurtasunari buruzko xedapenak biltzen dituzten bake-akordioen kopurua.

## **Emakume afrikarren borroka Emakumeen Mutilazio Genitalaren (EMG) aurka**

Benindik Somaliaraino eta Egiptotik Zimbabweraino, emakume afrikarrak 1960ko hamarkadatik ari dira EMGa erauzteko borrokan. Afrikako 27 herrialdeetako emakume afrikarrek sustatu zuten EMGaren praktika debekatzen duen Nazio Batuen ebazpena, 2012ko abenduaren 20an aho batez onartua.


Ezin konta ahala erakunde ari dira Afrikako herrialdeetan EMGaren aurka borrokan, parlamentuetan hura debekatzera bideratutako lege-aldaketak lortuz (Sudan, Gambia, Nigeria, Sierra Leona, Kenya, Uganda eta abar). Politika- eta lege-mailako lan horretaz gain, EMGaren aurkako ekintzaile afrikarrek hezkuntza- eta sentsibilizazio-kanpainak egiten dituzte komunitateekin, EMGa erauztera bideratutako aldaketa sozial eta kulturalak sortzeko. Familiekin lan egiten dute, gizonekin (gizonek postu erabakigarri asko baitituzte, eta praktika horrek iraun dezan laguntzen baitute), komunitate tradizionaletako liderrekin, EMGa erauzteko aliatu bihurtu daitezten, eta osasun- eta hezkuntza-langileekin, praktikak eragiten dituen egitateen errealitatea ezagut dezaten.

## Emakumeen mutilazio genitala nesken eta emakumeen oinarrizko giza eskubideen urraketa da

*Emakumeen mutilazio edo ablazio genitala emakume edo neska bati egiten zaion prozedura da, haren organo genitalak aldatu edo lesionatzeko, horretarako arrazoi medikorik izan gabe. Ia beti kanpoko genitalak hein batean edo osorik erauztea dakar.*

### ► Emakumeen mutilazio genitalaren mapa

### ▼ Fátima Djarra Sani





## **Emakumeen parte-hartzea “Udaberri Arabiarretan”**

2010etik 2012ra bitartean, manifestazio ugari eta masiboak izan ziren Tunisian, Egipton eta Libian edo Marokon, “Udaberri Arabiarrak” deitu ziotena sortu zutenak. Iraultza horretan, emakumeak protagonista izan ziren, eta demokrazia, justizia soziala, askatasuna, duintasuna eta berdintasuna exijitu zituzten, oinarrizko askatasunak eta eskubide-berdintasuna ukatzen zizkieten gobernu ustelez nazkatuta. Ordena publikoko indarren errepresioa jasan zuten arren, borrokari eutsi zioten.

Libian eta Egipton, “Udaberri Arabiarraren” iraultzak ez zuen ia aurrerapenik lortu, eta, azkenean, indar kontrairaultzaileek zapaldu zuten; Tunisian, ordea, gobernu demokratiko bat sortu zen. Tunisiako emakumeen antolakundeek lortu zuten gobernuak osoko parekotasuna eskatzen zuen lege bat onartzea batzar eratzailerako zerrendetan, eta tokiko kontzejuetako karguen erdiak inguru betetzea lortu zuten. Aurrerapenak ez dira amaitu, eta, 2021ean, Najla Boude estatuko lehen ministro bihurtu da; hala, kargu hori betetzen duen lehen emakume tunisiarra da, bai eta beste edozein herrialde arabiarretakoa ere.

## Ba al zenekien?

**112.or: Taytu Betul (Etiopia):** Etiopiako enperatriza XIX. mendean, kolonialismoaren aurkako borrokan aitzindaritzat jotzen da. Taytu Betulek uko egin zion Etiopiako lurraldeak galtzea ekar lezakeen edozein negoziatori Italiarekin. **Njinga Mbandi (Kabasa, gaur egungo Angola):** Nzinga erregina izenez ezaguna, Mbundu herriko monarka izan zen XVII. mendean, gaur egun Angola den lurraldean. 40 urtez, oposizio sendoa egin zuen portugesak konkistatzeko saiakeren aurka, operazio militarren eta negoziazio diplomatikoen bidez. **Yaa Asantewaa (Besease - Ghana):** Ashanti herriko erregina izan zen; gaur egungo Ghana dago han. Yaa Asantewaa erreginak bere armada mobilizatu zuen, eta hainbat hilabetez gogor setiatu zuen Kumasi misio britainiarra; Ashanti armadaren eta britainiar armadaren arteko borroka latza gertatu zen han.

**Amina de Zaria edo Aminatu:** estatu musulmaneko erregina hausa izan zen, gaur egungo Nigeriaren ipar-mendebaldean. XVII. mendean, 20.000 lagun izatera iritsi zen gudaroste baten buru izan zen, eta haren agindupean hausa herriak konkista ugari egin zituen, bere lurraldea historiako muga handienetara zabalduz.

**114.or.: Emakume sahararren haimak:** haimak eta behin-behinekotasun egoeran eta etengabeko laguntza premian dauden etxeak dituen hiria da. Saharako herriaren nortasuna eta historia ordezkatzeko dituen, eta okupazioaren aurkako haren erresistentzia baketsuaren ikurra da.

Funmilayo Ransome-Kuti (Nigeria): Nigeriako emakumearen eskubideen aldeko irakaslea, politikaria eta ekintzailea izan zen. Bere belaunaldiko lider garrantzitsuenetako bat da.

**124.or.: Fátima Djarra Sani (Ginea-Bissau):** integratzaile soziala da, kulturen arteko bitartekaria eta ablazioaren aurkako ekintzailea. Munduko Medikuetan lan egiten du, Afrikako komunitatearekiko bitartekari gisa.

## Kontzeptuak hurbiltzen

- 1. Sexu- eta ugalketa-eskubideak:** sexualitateari eta ugalketari buruzko giza eskubideak dira; horien bidez, emakumeek eta gizonek beren gorputzari eta bizitzari buruzko erabaki libreak hartzeko askatasuna dute. Helburua da pertsona guztiak sexualitatearen eta ugalketaren esparruan diskriminaziorik, arriskurik, mehatxurik, hertsadurarik eta indarkeriarik gabe bizitzea, sexu-bizitza osasuntsua, arriskurik gabea, atsegina eta arduratsua izanez.
- 2. Hizkuntza inklusiboa:** ahoz zein idatziz adierazteko modua da, sexua, gizarte-generoa edo genero-identitatea bereizi gabe eta genero-estereotipoak iraunarazi gabe. Hizkuntza kultura- eta gizarte-jarrerak zehazten dituen funtsezko faktoreetako bat denez, generoari buruzko hizkuntza inklusiboa berdintasuna sustatzeko eta genero-aurreiritziei aurre egiteko neurria da.
- 3. Patriarkatua:** jatorriz patriarka hitzetik eratorritako hitza, feminismo- eta genero-ikerketek joan den mendeko 70eko hamarkadatik aurrera erabilia, antolamendu eta nagusitasun sexualeko egitura bati erreferentzia egiteko. Egitura horretan, gizonen autoritatea eta boterea gailentzen dira, eta emakumeak, aldiz, askatasunik, eskubiderik, botere ekonomiko, sozial edo politikorik gabe uzten dira.
- 4. Sororitatea:** latinezko soror hitzetik datorren hitza da, eta emakumeen arteko haurridetasuna esan nahi du. Gaur egun, emakumeek elkarri laguntza emateko duten gaitasunari egiten dio erreferentzia, emakume bakoitzaren balioa eta ekarpena onartuz, kointzidentziak sustatuz eta desberdintasunak minimizatuz.


## Oroitu beharrekoak

*Afrikako feminismoek beren ekintzaren muinean jartzen dituzte emakume afrikarren bizitzak eta kezkak.*

**Emakume afrikarrak beti izan dira beren ingurune osoaren bizraupenerako estrategien sortzaile handiak.**

**Afrikako emakumeek beren gizarteetako borroka sozial eta politikoetan duten eraginak eta parte-hartzeak tradizio luzea dauka, eta askotan ikusezina izan da.**

**Zer gogoratu nahi duzu zuk?**



## Bibliografía eta irudien zerrenda

Iker Zirion Landaluze y Leire Idarraga Espel (2014). *Los feminismos africanos. Las mujeres africanas "en sus propios términos"*. Universidad Autónoma de Madrid. Grupo de Estudios de Relaciones Internacionales (GERI). Disponible en: <https://repositorio.uam.es/handle/10486/677219>

Ángeles Jurado (31/12/2018) *¿Cómo se representa el feminismo en África?*. Revista Es-global. <https://www.esglobal.org/como-se-representa-el-feminismo-en-africa/>

Eugenia Arduino. *África y sus mujeres. Reflexiones sobre el feminismo poscolonial africano*. Revista Cambios y Permanencias, número 7, 2016. Disponible en: <https://revistas.uis.edu.co/index.php/revistacyp/article/view/7049/7284>

Monika Rebala (26/02/2017). *Un matrimonio entre mujeres para salvar la herencia*. El País. África no es un país. [https://elpais.com/elpais/2017/02/23/eps/1487804742\\_148780.html](https://elpais.com/elpais/2017/02/23/eps/1487804742_148780.html)

Cristina Vallejo (30/01/2019). *Las mujeres musulmanas buscan su sitio en el feminismo*. CTXT Contexto y Acción, número 206. <https://ctxt.es/es/20190130/Politica/24181/feminismo-islam-espaa%C3%B1a-hiyab-cristina-vallejo.htm>

Rían de la Torre (15/11/2015) *Corrientes del feminismo africano*. Revista Afrofeminas. <https://afrofeminas.com/2015/11/16/corrientes-del-feminismo-africano/>

Chimamanda Ngozi Adichie (diciembre 2012). *Todos deberíamos ser feministas*. TED Talks [https://www.ted.com/talks/chimamanda\\_ngozi\\_adichie\\_we\\_should\\_all\\_be\\_feminists?language=es](https://www.ted.com/talks/chimamanda_ngozi_adichie_we_should_all_be_feminists?language=es)

Soledad Vieitez Cerdeño y Roser Manzanera Ruiz (2019). *Movimientos de mujeres y gestión comunitaria en África Subsahariana*. REpensando África. Trenzando Redes en torno a Derechos Globales. Alianza por la Solidaridad. Disponible en: <https://derechosglobales.org/publicacion-repensando-africa-vol-2/>

- <https://www.remeisipi.es/entrevista-a-remei-sipi-mayo-escritora-editora-feminista-organizadora-y-activista-social/>
- <https://www.okchicas.com/mujeres/jefas-de-estado-que-vencieron-coronavirus/>
- <https://www.casaffrica.es/es/persona/funmilayo-ransome-kuti>
- <https://www.dailymaverick.co.za/article/2020-07-16-unresolved-intimate-partner-assault-josina-machel-loses-an-eye/>
- <https://www.sowetanlive.co.za/news/2017-10-17-presidential-hopeful-nkosazana-dlamini-zuma-has-stronger-support-anc-kzn-chair/>
- <https://thenationonlineng.net/everyone-should-pay-attention-to-politics/>
- <https://twitter.com/afrifeminists/status/1085099898062716928?lang=ga>
- <https://www.dw.com/de/tsitsi-dangarembga-buchpreis-zur-meinungsfreiheit-in-simbabwe/a-59350329>
- <https://www.elcritic.cat/entrevistes/miriam-hatibi-pels-mitjans-sere-la-dona-del->

[vel-que-parla-de-terrorisme-res-mes-11823](#)

- [https://ajuntament.barcelona.cat/bcnacciointercultural/es/noticia/la-conferencia-de-sirin-adlbi-sibai-el-viernes-19-de-marzo-lleu-labonne\\_313253](https://ajuntament.barcelona.cat/bcnacciointercultural/es/noticia/la-conferencia-de-sirin-adlbi-sibai-el-viernes-19-de-marzo-lleu-labonne_313253)
- <http://revista.lamardeonuba.es/suelma-beiruk-el-resultado-de-esta-guerra-es-existir-libres-o-no-existir/>
- <http://www.huellasdemujeresgeniales.com/leymah-gbowee-2/>
- <https://www.bbc.com/news/world-africa-49269136>
- <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/otrasFormas/mutilacion/protocolos/protocolo/pdf/ProtocoloMGFExtremadura2015.pdf>
- <https://geoviolenciasexual.com/fatima-djarra-sani-detras-de-la-mutilacion-genital-femenina-esta-el-control-de-la-mujer-y-de-su-sexualidad/>

